



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

INKLUSIOA LANTZEA IKASKUNTZA-ZERBITZUAREN BIDEZ:
Autismoa eta ikaskuntza-zerbitzua

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Gaston Andres, Ilazki.

ZUZENDARIA: López Vélez, Ana Luisa.

Laburpena:

Gaur egungo gizartean inklusioa irakasleek aurre egin beharreko erronka izaten jarraitzen du. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honetan, ikaskuntza-zerbitzu baten bidez, ikusizko material bat sortu da Gasteizko San Martin ikastetxe publikoko autismoaren espektroko nahasmendua duten ikasleentzat, Heziketa Fisikoko saioetan erabiltzeko. Horretarako, marko teoriko bat garatu da, non proiektua era egokian garatzeko, inklusioaren, autismoaren eta hautatutako metodologiaren (ikaskuntza-zerbitzua) aspektu garrantzitsuen azterketa teoriko sakonak egin dira, aurrerago emaitzekin konparatzeko. Bertan beroketa bat, kiroldegiko materiala, taldeko jolasak eta paraxutarekin jolasak jaso dira. Proiektua gauzatzeko, hiru urrats nagusi eman dira, hasteko, informazioa biltzea. Horretarako, galdetegi bat egin da, materialerako ideiak jasotzeko. Ondoren, piktogramak erabiliz eta zentroko profesionalen laguntzarekin euskarria sortu da. Eta amaitzeko, euskarri bisuala ikastetxean aurkeztu da eta formulario baten bidez baloratu egin da. Laburbilduz, ikusizko baliabide bat sortu da AEN duten ikasleak Heziketa Fisikoan egokitzapen handiago bat izateko, haien parte-hartzea sustatzeko. Lan honek erakusten du proiektu txikiak irakasleentzat zein ikasleentzat baliagarriak izan daitezkeela, guztiek parte hartzeko aukerak dituzten giro inklusiboagoak sortzeko. Emaitzek erakusten dute proiektu hauek inklusioarekin lotutako gizartean aldaketarako tresna gisa erabili daitezkeela.

Hitz gakoak: Inklusioa, ikaskuntza-zerbitzua, autismoaren espektroko nahasmendua, AEN, piktogramak.

Resumen:

La inclusión en la sociedad actual sigue siendo un reto al que se enfrentan los y las profesoras. Por eso, en este Trabajo de Fin de Grado, a través de una experiencia de aprendizaje servicio, se ha creado un material visual para el alumnado con trastorno del espectro autista del colegio público San Martín de Vitoria-Gasteiz para su utilización en las clases de Educación Física. Para ello, se ha desarrollado un marco teórico, donde se han investigado los aspectos más importantes sobre la inclusión, el autismo y la metodología escogida (aprendizaje servicio), para más adelante compararlo con los resultados. En este se ha recogido un calentamiento, material del polideportivo, juegos en grupo y juegos con el “paracaídas”. Para ello se han dado tres pasos principales, primero, recoger la información a través de la elaboración de un cuestionario en el que se recogen las ideas para el material. Posteriormente, se ha creado el material utilizando pictogramas y con la colaboración de los profesionales del centro. Y para finalizar, se ha presentado en el centro

el material y se ha valorado mediante un formulario. En resumen, se ha creado un recurso visual para que el alumnado con TEA tenga una mayor adaptación en Educación Física, para fomentar su participación. Este trabajo muestra que los pequeños proyectos pueden servir tanto al profesorado como al alumnado para crear ambientes más inclusivos en los que todos y todas puedan participar. Los resultados muestran que estos proyectos pueden ser utilizados como herramienta de cambio en la sociedad relacionada con la inclusión.

Palabras clave: Inclusión, aprendizaje servicio, trastorno del espectro autista, TEA, pictogramas.

Summary:

Inclusion in today's society continues being a challenge faced by teachers. For this reason, in this Final Degree Project, through service learning, a visual material has been created for students with autism spectrum disorder at the San Martín public school in Vitoria-Gasteiz to be used in Physical Education lessons. For this purpose, a theoretical framework has been developed, where the most important aspects of inclusion, autism and the chosen methodology (service learning) have been investigated and later compared with the results. The material includes a warm-up, sports center material, group games and games with the "parachute". For this purpose, three main steps have been taken: first, to collect the information. For this, a questionnaire has been elaborated in which the ideas for the material were collected. Then, the material has been created using pictograms and with the collaboration of the center's professionals. Finally, the material has been presented in the center and evaluated by using a questionnaire. In summary, a visual resource has been created for students with ASD to have a better adaptation in Physical Education, to encourage their participation. This work shows that small projects can help both teachers and students to create more inclusive environments in which everyone can participate. The results show that these projects can be used as a tool for change in society related to inclusion.

Key words: Inclusion, service learning, autism spectrum disorder, ASD, pictograms.

Aurkibidea

Sarrera	4
1. Justifikazioa	5
2. Helburuak	5
3. Marko teorikoa	6
3.1. Eskola inklusiboa.....	6
3.1.1. Hezkuntza sailak inklusioarekiko duen ikuspuntua EAEn.....	7
3.1.2. Heziketa Fisikoa eskola inklusiborako bide bat.....	9
3.2. Autismoaren espektroko nahasmendua.....	9
3.2.1. Gaur egungo egoera.....	9
3.2.2. Zer da?.....	10
3.2.3. Hezkuntza sailak autismoarekiko duen ikuspuntua EAEn.....	11
3.2.4. Ume autisten inklusioa Heziketa fisikoko saioetan.....	12
3.3. Ikaskuntza-zerbitzua.....	12
3.3.1. Oinarriak.....	13
3.3.2. Ikaskuntza-zerbitzua izateko baldintzak.....	14
3.3.3. Ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzeko urratsak.....	15
3.3.4. Ze aukera ematen dizkie behar bereziak dituzten umeei?.....	15
4. Proposamena	17
4.1. Eskolaren testuingurua.....	17
4.2. Abiapuntua.....	17
4.3. Esku-hartzea.....	18
4.4. Eskolarekin harremana.....	19
4.5. Parte-hartzaileak.....	19
4.6. Prozedura.....	19
5. Informazioa jasotzeko tresnak	21
5.1. Hasierako informazioa biltzeko tresna.....	21
5.2. Ikaskuntza-zerbitzua sortzeko tresna.....	22
5.3. Ikaskuntza-zerbitzua ebaluatzeko tresna.....	22
6. Emaizak	22
6.1. Planifikazioa.....	22
6.2. Faktore erraztatzailak eta oztopatzaileak.....	23
6.3. Parte-hartzaileen balorazioa.....	24
6.4. Balorazio pertsonala.....	27
7. Ondorioak	27
7.1. Eztabaida.....	27
7.2. Balorazioa.....	29
8. Bibliografia	32
9. Eranskinak	34
1. Eranskina: Azala, aurkibidea eta beroketa.....	34
2. Eranskina: Materiala.....	37
3. Eranskina: Talde jolasak.....	39
4. Eranskina: Jolasak paraxutearekin.....	46
5. Eranskina: Informazioa biltzeko tresna.....	49
6. Eranskina: Zerbitzua ebaluatzeko tresna.....	50

Sarrera

Gizarte inklusioa mundu osoko pertsona askok aurre egin beharreko erronka da, eta hezkuntzak urteak daramatza guztiontzako hezkuntza inklusiboaren alde borrokatzen. Diskriminazioa eta bazterkeria gizartean zein hezkuntzan parte-hartze osoa eta eraginkorra mugatzen duten oztopoak dira. Hezkuntza, bitarteko garrantzitsua da oztopo horiek gainditzeko, baina ikuspegi zabalagoa behar da gizarte-bazterketari aurre egiteko.

Testuinguru horretan, ikaskuntza-zerbitzua ikaskuntza akademikoa eta konpromiso soziala uztartzen dituen metodologia pedagogiko gisa aurkezten da. Honek trebetasun eta ezagutza garrantzitsuen garapena sustatzeaz gain, erantzukizun zibikoa eta konpromiso soziala ere sustatzen ditu. Hezkuntzaren barruan metodologia hau oso erabilgarria da, ikasleei beraien ingurunearekin kritikoagoak eta konprometituagoak izaten laguntzen baitie.

Gradu Amaierako Lan honetan, ikaskuntza-zerbitzua gizarteratzeko tresna gisa aztertuko da. I+Z metodologia baztertutako pertsonak, bereziki autismoaren espektroko nahasmendua duten ikasleek, aurre egin beharreko oztopoak gainditzeko nola erabil daitezkeen izango da ikuspegiaren ardatza. Hau lortzeko, Heziketa Fisikoko irakasgaitik lantzea erabaki da; izan ere, haur hauek baztertuta senti daitezkeen beste eremu bat da, hezitzaile gisa gure esku egon daitezkeen arrazoiengatik.

Lan honetan zehar gai desberdinak jorratuko dira, alde batetik, inklusioa eta Eusko Jaurlaritzak gai honi buruz duen ikuspegia aztertuko da. Ondoren, ikaskuntza-zerbitzuaren oinarrizko ezaugarriak eta metodologia hau komunitatean gizarteratzea sustatzeko nola erabil daitezkeen azalduko da. Jarraian, autismoa eta hezkuntzaren barruan duen egoera aipatuko da. Eta azkenik, eskola batean egindako ikaskuntza-zerbitzua bat aurkeztuko da, gizarte-inklusioan laguntzeko, gorputz-hezkuntzako ikasgaitik eta autismoa duten haurrengan arreta jarrita.

1. Justifikazioa

Azken hamarkadan, Hezkuntza Sistemak eboluzio eta hobekuntza nabarmena bizi ditu eskola inklusiboaren bidean baina oraindik lan asko falta da. Urteak pasa ahala, hezkuntzan bezala, gizartean ere, aurrerapauso izugarriak eman dira gai honen inguruan. Hori dela eta, inklusioa eta Heziketa Fisikoa batera lantzerantz eraman nauten arrazoiak anitzak izan dira.

Aurkeztera noan lan honetan, Heziketa Fisikoko ikasgaiaren bidez, inklusioa zer den ulertzeko, eta honetan lan egiteko ikaskuntza-zerbitzu baten proposamen bat martxan jarri dut. Honetan, oinarri zibikoa eta akademikoa duen proiektu bakar bat aurrera eraman da eduki teorikoak zein praktikoak zerbitzu komunitarioarekin batera lotuz (Varela et al., 2019).

Graduan zehar hiru praktikaldi egiten dira eta aurten hirugarrena egiteko aukera izan dut. Lehenengo bi praktikaldietan ez bezala hirugarrenean adin desberdinetako umeekin Heziketa Fisikoko irakasgaiaren lan egiteko aukera izan dut eta beste ikuspegi batetik ezagutu ditut umeak, eta honek, asko lagundu nau hezkuntza beste paradigma batetik antzemateko. Gainera, hezkuntza-premia bereziak dituzten ume askorekin lan egiteko aukera izan dut eta hauekin egotean aurkitu dut nire ikaskuntza-zerbitzua bideratzeko abagunea.

Praktikak egindako ikastetxean, lehen esan bezala, hezkuntza-premia bereziak dituzten ume asko ari dira ikasten, horien artean autismoa duten haur asko. Haur horiek heziketa fisikoko saioetan parte hartzen dute gainerako ikasleekin, baina batzuetan ez dute parte hartzen jolasak ulertzen ez dituztelako. Premia hori ikusita, haur horiek eskolan lantzen dituzten piktogramekin azaldutako eskoletan erabiltzen duten ariketa-koaderno bat sortu da. Horrela, haur horientzako euskarri bisual bat sortu da, ariketak ulertzen lagundu diena, horietan parte hartu ahal izateko.

Laburbilduz, GrAL honen helburua ikaskuntza-zerbitzua gizarteratzeko tresna gisa potentziala frogatzea izan da. Baztertutako pertsonen, bereziki autismoaren espektroko nahasmendua dutenen, aurre egin behar dieten oztopoei heltzen, gizarte-erantzukizuna sustatuz eta ikasle horien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetuz.

2. Helburuak

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia hurrengoa da: eskola inklusiboago baterantz lan egitea, ikaskuntza-zerbitzu baten bidez, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak, kasu honetan haur autistak, Hezkuntza Fisikoaren arloan barneratzen lagunduz.

Bestalde hona hemen Gradu Amaierako Lan honen helburu espezifikoak:

1. Inklusioa zer den ikertzea eta hezkuntzan zein rol jokatzen duen aztertzea.
2. Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) zer den ikertzea eta hezkuntzak honekiko duen ikuspuntua eta egiten duen lana ezagutzea.
3. Heziketa Fisikoko irakasgaiak behar bereziak dituzten umeekin lan egiteko eta eskola inklusiborako eskeintzen dituen aukerak aztertzea eta ezagutzea.
4. Ikaskuntza-zerbitzua aztertzea eta metodologia honetan oinarrituta proposamen bat aurrera eramatea ikastetxe batean.
5. Inklusioan oinarritutako hezkuntza bultzatzea, ikaskuntza-zerbitzu baten bidez.
6. Autismoa duten umeen beharrak ikertzea eta Heziketa Fisikoko irakasgaiatik hauek asetzea.

Behin helburuak zehaztuta, lanaren marko teorikoa aurkeztuko da. Honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak paper garrantzitsua izango du, bertan dagoen egoera aztertuko delako. Gainera, inklusioaren zein ikaskuntza-zerbitzuaren eta autismoaren terminoen bilakaeraz eta hauek duten garrantziaz hitz egingo da. Eta horretaz gain, gai hauek elkarren artean lotuko dira eta Heziketa Fisikoko irakasgaia abiapuntutzat hartuko da, bertan ematen den behar bat asetzeko asmoarekin.

3. Marko teorikoa

3.1. Eskola inklusiboa

Inklusioa azkenaldian asko erabiltzen ari den terminoa da, batez ere hezkuntzaren arloan. Aritu askok gure egungo hezkuntza-sistemaren ardatz nagusietako bat bihurtu den ideia hau defendatzen dute. Hezkuntza inklusiboaz ari garenean, ikasle guztiengan arreta jartzen duen hezkuntzaz ari gara, oinarri heterogeneo batetik abiatuta. Hezkuntza hau denei egokitutako curriculum baten alde dago, ez du emaitza berdinak bilatzen, baizik eta ikasle bakoitzak bere gaitasun eta mugetatik abiatuta, bere beharretara egokitutako ikaskuntza-prozesu oso eta aberasgarri bat izatea (Blanco, 2006).

Hezkuntza inklusiboak ekitatea azpimarratzen du, ekitaterik gabeko hezkuntza inoiz ez dela kalitatezkoa izango defendatzen baitu. Lehen esan dudan bezala, ikasle guztientzako garapen-maila gorena lortzea du helburu, bakoitzaren ezaugarriak kontuan harturik. Gainera, esan beharra dago, hezkuntza inklusiboak ez dituela ikasleak eta haien ezaugarri

personalak bakarrik kontuan hartzen, baita ikasten duen ikastetxe mota eta ikastetxe horren ezaugarriak ere hartzen baititu kontuan (López-Vélez, 2018).

Hezkuntza inklusiboaren definizioen barruan, esan dezakegu hezkuntza-sistema komunitateko ikasle guztiei egokitzea sustatzen duen prozesua dela. Horrela, gaur egun inklusioa da irakaskuntzako praktikaren eta politikaren ardatza, hezkuntza eskubide unibertsala eta mundu kritikoago eta bidezkoago bat aldatzeko tresna dela defendatzen duena (IBE-UNESCO, 2016).

Horregatik, haur guztiak aldi berean heztean, eskola inklusiboek ikasleen premia desberdinei erantzungo dieten hezkuntza-moduak bilatu eta garatu behar dituzte (IBE-UNESCO, 2016). Horrela, ikastetxeak irakaskuntza-ikaskuntza modu horiek garatu beharko ditu lehenik, denak batera hezi ahal izateko, eta, horrela, ikasleek bizikidetzaren eta errespetu-balio oso garrantzitsuak garatuko dituzte. Hau da, era honetan, haien mugak eta gaitasunak ezagutzen, errespetatzen eta pertsona desberdinez osatutako talde batean elkarrekin bizitzen ikasiko dute, bazterketarik gabeko espazio osasuntsu bat sortuz.

Horretaz gain, 2015ean NBEk arazo global handiei aurre egiteko modua birplanteatu zuen, eta 2030 agenda sortu zuen. Garapen iraunkorrerako agenda unibertsala da, eta 17 helburu zehazten ditu, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH). Hezkuntzak funtsezko zeregina du GIHak lortzeko, ez soilik helburuetako batek hari erreferentzia egiten diolako (4. GIH: Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat), baizik eta hezkuntza aldaketei irekitako ikaskuntza-prozesu bat delako, esparru globalean eta tokikoan ikuspegi berriak txertatzeko gai dena.

Dena den, aipatu beharra dago hezkuntza inklusiboa aurrera eramatea ez dela erraza batzuetan. Hezkuntza honek berrikuntza pedagogiko handiak eskatzen ditu, beharrezkoak direnak horrela hezteko, eta ikastetxe guztiek ez dituzte baliabide egokiak aldaketa horiei aurre egiteko. Horregatik, plangintza alde aurretik prestatzea ezinbesteko baldintza da bai ikastetxearentzat, bai irakasleentzat (Escribano eta Martínez, 2013).

3.1.1. Hezkuntza sailak inklusioarekiko duen ikuspuntua EAEn

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Hezkuntza sailak hezkuntza sisteman duen ardatz nagusienetariko bat inklusioa da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak (2019) hezkuntza sisteman inklusioa bermatzeko Eskola inklusiboa garatzeko bigarren plana martxan jarri zuen 2019an.

Plan honen helburua da ikasle guztien eskola-arrakastan eta haien garapen integralean laguntzea, inklusioaren, ekitatearen eta bikaintasunaren printzipioetan oinarrituta.

Horretarako, beharrezkotzat jotzen du hezkuntza-prozesuan inplikaturako eragile guztien parte-hartzea eta lankidetzak. Era honetan, ikastetxeei aukera ematen die dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak eraginkortasunez erabil ditzaten, ikasleen garapen integralean lagunduko duten estrategiak garatzeko eta, aldi berean, eskola inklusiboa, bizikidetzak positiboa eta bikaintasuna sustatzeko (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Plan hau ardatz estrategikoa batzuetatik abiatzen da, hala nola bizikidetzak gizarte kohesionatu baten tresna gisa hartzen da edo praktika inklusiboak garatzen dituzten jarduerak estrukturalak jasotzen ditu. Honetaz gain, eta ardatz estrategikoa hauetan oinarrituta, planak honako helburu hauek zehazten ditu (Eusko Jaurlaritza, 2019):

- Bizikidetzarako eta ekitateko esparru komuna definitzea, aniztasunaren balioa indartzeko eta ikasle guztien beharretara eta gaitasunetara egokitzeko.
- Politika eta praktika inklusiboak sustatzea, egiturazko jardueren bidez, euskal hezkuntza-sistema osoan.
- Ikastetxearen autonomia eta erantzukizuna sustatzea, ikasleekiko esku-hartzean eta hezkuntza esparruaren kudeaketan.
- Hezkuntza-komunitateak ikasle guztien arrakastan duen zeregina eraginkortasunez onartzea, eta haien ongizate psikosozialari laguntzen dioten beste sistema batzuekin (gizarte- eta osasun-sistemak adibidez) batera lan egitea aktiboki sustatzea.

Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana martxan jarri ondoren, Eusko Jaurlaritzak "Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP)" izeneko dokumentua sortu zuen 2020ko irailean.

Dokumentu honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin lan egiteko oso garrantzitsuak diren hainbat alderdi azaltzen dira. Lehenik eta behin, laguntza emozionalari buruz hitz egiten du, eta, ondoren, familiarekin lan egiteko orientabideak azaltzen jarraitzen du. Horren ondoren, HPB (Hezkuntza Premia Bereziak) duten haurrekin esku hartze bat nola diseinatzen hasi azaltzen du, eta, azkenik, haur hauei, haien beharren arabera, eman dakizkiekeen erantzun hezigarriari buruzko orientabideak ematen ditu (Eusko Jaurlaritza, 2020).

Bi dokumentu hauek asko lagundu diete irakasleei eta ikastetxeei bilatzen ari garen hezkuntza inklusibo horretara iristeko. Horrela, hezkuntza-komunitateko kide guztiei lagundu dieten orientabide erabilgarriak eman dituzte instituzioek. Azalduko guztiagatik esan dezakegu, bai tokian-tokian, bai modu globalean, hezkuntzak urteak daramatzala guztiontzat

egokitutako hezkuntza inklusibo baterantz instituzioen laguntzarekin lanean eta oraindik ere horretan dabilela (Hernández-Castilla et al., 2020).

3.1.2. Heziketa Fisikoa eskola inklusiborako bide bat

Eskola-testuinguru inklusiboan, Heziketa Fisikoak zeregin garrantzitsua dauka, eta hainbat estrategia aurkezten dira, HPB duten ikasleek Heziketa Fisikoko gelako giro naturalean modu aktiboan eta eraginkorrean parte har dezaten. Alde batetik, ikaskuntza kooperatiboaren bidez jarreretan eta balioetan heztea oso garrantzitsua da. Izan ere, horrela, ikasle guztiak aniztasuna errespetatzen ikasiko dute, eta inklusioa komunitate osoa aberasten duen balio gisa barneratu ahal izango dute. Bestalde, garrantzitsua da maila anitzeko irakaskuntzaren bidez edo zereginak egokituz lan egitea; horrela, ikasle guztiak jarduera guztiak egiteko aukera izango dute, eta bazterketa egoerak murriztu egingo dira (Ríos, 2009).

Aipatutakoaz gain, Heziketa Fisikoko saioetan esparru inklusibo bat ahalbidetzeko, Ríos-ek (2009) adierazten duen bezala, irakasleek gainerako espezialistekin lan egin behar dute (ikastetxeak, Hezkuntza Bereziko irakasleak, edo kanpokoak, Talde Psikopedagogikoak) eta etengabe beraien burua prestatu behar dute, ager daitezkeen Hezkuntza Premia Bereziei hezkuntza-erantzun egokia ematen jakiteko. Laguntzari dagokionez, irakasleek saihestu egin behar dute ikasleak erreferentziako helduarekiko mendekotasuna izatea (Hezkuntza Bereziko laguntzaileak, besteak beste). Berriz, gelako beste umeak trebatuko dituzten estrategiak bilatu behar dituzte, hauek HPBL daukan ikaskideari txandaka laguntzeko.

3.2. Autismoaren espektroko nahasmendua

3.2.1. Gaur egungo egoera

Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN), normalean «autismoa» deitzen dena, bizitza osoan irauten duen garapen neurologikoaren nahasmendua da. Oro har, diagnostiko hori duten pertsonen komunikazioan eta elkarrekintza sozialean gabezia iraunkorrak izaten dituzte. Gaur egungo egoerari erreparatuz, esan daiteke AEN (Autismoaren espektroko nahasmendua) diagnostikatutako haurren kopurua nabarmen eta gradualki handitu dela azken hamarkadetan (Lacruz-Pérez et al., 2022).

Horretarako, Espainiako Autismoaren Konfederazioak (2021) beraien txostenean azaltzen dituen datuak aztertu besterik behar dira. Dokumentu honen arabera, AEN duten haurren

kopuruak gora egin du azken 10 urteetan, eta gehienbat mutilak dira nahasmendu hau dutenak. Gaur egun, behar bereziei lotutako hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituzten 4 ikasletik 1ek AEN dauka. Gainera, irakasleen %75ek nahasmendu horri buruzko prestakuntza jaso duen arren, %47k uste du egungo hezkuntza-sistema oraindik ez dagoela prestatuta haur hauen behar guztiak asetzeko. Datu hauek argi eta garbi islatzen dute Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, AEN diagnostikoa duten ikasleen kopuruak nabarmen egin duela gora azken urteetan, eta oraindik ere, ume hauen inklusioa ez dela errealitate bat (Espainiako Autismoaren Konfederazioa, 2021).

3.2.2. Zer da?

AENren adierazpen klinikoak izugarri aldatzen dira pertsonen arabera, bai eta haren funtzionamendu intelektuala eta hizkuntza-trebetasunen garapen-maila ere. Hala ere, diagnostiko hau duten pertsona guztiek oinarrizko ezaugarri batzuk partekatzen dituzte, eta euren garapenaren eta funtzionamendu pertsonalaren bi arlotan agertzen dira: komunikazio eta elkarrekintza soziala, eta, portaeraren eta pentsamenduaren malgutasuna (Vidriales et al., 2021).

- Komunikazioa eta elkarrekintza soziala
 - Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako trebetasunak: hitzeko komunikazioaren barruan, badira ahozko hizkuntzarik garatzen ez dutenak eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntza behar dutenak. Baina badira, halaber, hizkuntza-trebetasun formal egokiak izanik, komunikazio batean erabiltzeko zailtasunak dituztenak. Hitzik gabeko komunikazioari dagokionez, AEN duten pertsonak zailtasunak izaten dituzte beste pertsonen aurpegiko keinuen eta adierazpenen esanahia ulertzeko, baita beste elementu batzuen ere, hala nola begietako kontaktua edo gorputz-jarrera.
 - Interakzio sozialerako trebetasunak: autismoa duten pertsona batzuek zailtasunak izan ditzakete besteekin harremanak izateko, testuingurua ulertzeko eta egoera sozial jakin batzuetan moldatzeko. Izan ere, oro har, arazoak dituzte portaera egoera sozial desberdinetara egokitzeko.
- Portaeraren eta pentsamenduaren malgutasuna
 - AEN duten pertsonak zailtasunak izan ditzakete testuinguruetakoa eskaerei malgutasunez erantzuteko, beraien pentsatzeko eta

jokatzeko modua kontrolatzeko arazoak izanik. Horregatik, aldaketetara edo ustekabeko egoeretara egokitzeak ahalegin handia eragin diezaieke, eta ondoeza, larritasuna edo antsietatea eragin. Horregatik, oso ohikoa da autismoa duten pertsonen ezinegon handia pairatzea soinu jakin batzuen aurrean, adibidez.

3.2.3. Hezkuntza sailak autismoarekiko duen ikuspuntua EAEn

2.1.1 atalean azaldu moduan Eusko Jaurlaritzak dokumentu desberdinak sortu ditu azken hamarkadan eskola inklusiboa garatzeko, eta horren adibide da "Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP)" izeneko dokumentua (Eusko Jaurlaritza, 2020).

Arestian aipatu bezala, dokumentu honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrekin lan egiteko orientabideak azaltzen dira. Aspektu desberdinak jorratzen ditu honek, hala nola, laguntza emozionala, familiarekin lan egiteko orientabideak, HPB duten hurrekin esku hartze bat diseinatzeko urratsak, eta, haur hauei, haien beharren arabera, eman dakizkiekeen erantzun hezigarriei buruzko orientabideak. Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostikoa duten haurren kasuan, hauek dira haiekin lan egiteko ematen dizkiguten aholkuak (Eusko Jaurlaritza, 2020):

- Profesionalen, ikaslearen, irakasleen eta familiaren arteko lankidetzak eta koordinazioa beharrezkoa izango da.
- Bere ikasketa prozesua ikasten ikastean, parte-hartze zuzenean, ondo pasatzen ikastean eta funtzionaltasunean ikastean oinarrituko da.
- Egokitzapenen barruan, lehenik ikaslearen ezaugarriak behatuko dira eta gero normalizaziora hurbilduz eta Ikaskuntza Diseinu Unibertsalaren printzipioetan oinarrituz egokitzapenak sortuko dira,
- Materialari dagokionez, ahal bada, gainerako ikasleekin berdina erabiliko du, eta, bestela, egokitu egingo zaio. Oso gomendagarria da piktogramak erabiltzea, asko laguntzen baitie ulermen-ahalmenean.
- Ikaslearekin ikastetxean denbora partekatzen duen orok hura babesten saiatu behar du, gehiegi babestu gabe eta haren askatasuna eta autonomia garatzeko espazioa bermatuz.
- Oso gomendagarria da errutinekin (klaseko ordutegia, denboran kokatu, eguna, eguraldia...) modu bisualean lan egitea.

3.2.4. Ume autisten inklusioa Heziketa fisikoko saioetan

Ikasle autistek mundu egituratua behar dute, estimulazio handiko giro konplexuak saihestuz, seinale argiak erabiliz, jarduera ugaritan parte hartuz eta gehiegizko laguntzei ekidituz. Horregatik, irakasleek ikasle horiek Heziketa Fisikoan egokitzeko etengabe lanean ari behar dute, irakasgai honetan prozesu egokituaz ari garenean, irakasleak ikasle guztien ikaskuntza-beharrei erantzuteko planifikatu eta jardun behar duen prozesuaz ari gara. Horretarako, ikaskuntza kooperatiboaren erabilera pedagogikoa baliabide eraginkortzat hartu izan da askotan (Heredia eta Durán, 2013).

Baina Heredia eta Durán-ek (2013) ondo adierazten duten bezala, baliabide hau eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da ikasleen artean ikasketa kooperatiboaren ezaugarri hauek ematea: talde heterogeneoak eta egonkorrak, berdinen arteko interakzioa, talde-interakzioa, interdependentzia positiboa, banakako eta taldeko erantzukizuna, elkarren mendeko ebaluazioa eta aukera-berdintasuna.

Aditu askoren arabera, metodo kooperatiboak baliagarriak dira AEN duten ikasleak Heziketa Fisikoko saioetan jarduteko, eta horien parte-hartze handiagoa lortzeko. Era laburrean, esan genezake, autismoaren espektroko nahasmendua duen ikaslearen inklusioa sustatzeko, jarduera erakargarriak eta segurtasunez egin ditzakeenak proposatu behar zaizkiola, bere parte-hartzea aktiboa izan dadin laguntza emanez (Heredia eta Durán, 2013).

Aurreko guztia kontuan hartuta, esan genezake gaur egungo ikastetxeetan, topa dezakegun beharretako bat HPBduten haurren inklusioa dela kontuan hartuta, zenbait irakasgaietan egokitzapenak beharrezkoak direla. Horretarako, gure kasuan Heziketa Fisikoko saioak oinarri hartuta metodologia aktibo baten bidez egitea erabaki da, eta, kasu honetan, ikaskuntza-zerbitzuaren bidez egingo da. Izan ere, metodologia honen bidez gizarte inklusiboago eta kritikago baterantz aldaketak ematen dira, eta horregatik, hurrengo orrietan honen oinarri teorikoak azalduko dira.

3.3. Ikaskuntza-zerbitzua

Ikaskuntza-zerbitzua (I+Z) metodologia bat da, eduki teorikoak eta praktikoak zerbitzu komunitarioarekin uztartzen dituena, oinarri zibikoa eta akademikoa duen proiektu bakar batean. Hau John Dewey-ren eta bere «learning by doing» -en aginduetatik abiatuta sortu zen, eta hortik aurrera Ipar Amerikan sistematizatu eta sendotu egin zen, ondoren mundu osora zabaltzeko (Varela et al, 2019).

Metodo berritzaile honek esperientzia-izaerako ikaskuntza-irakaskuntza metodo berritzailea da, komunitatearentzako zerbitzua, ikaskuntza akademikoarekin, hazkunde pertsonalarekin,

erantzukizun zibikoarekin eta hausnarketa kritikoarekin biltzen duena. Adituek ikasteko eta gizartea eraldatzeko tresna indartsutzat hartzen dute, hezkuntzaren azken helburuari erantzuten diona: gizartea eraldatzeko gai diren herritar trebeak prestatzea (Aramburuzabala et al., 2015).

I+Zren alderdi pedagogikoei dagokienez Batlle (2011) adierazten duen bezala, metodologia honek berdinen arteko ikaskuntzan eta esperientzian, ikaslearen autonomian, parte-hartzean, hausnarketa kritikoan eta ikerketan oinarritutako ikaskuntzan laguntzen du. Hau da, ikasleek besteekin lankidetzan ikasten dute, aurretik ikasitakoa aplikatuz, beren ingurunekeo beharrei irtenbidea emateko. Horretaz gain, ikaskuntza-zerbitzuak ikastetxeek ematen dituzten beste proposamen metodologiko batzuekin lan egiteko aukera ematen du, hala nola kompetentzien bidezko ikaskuntza, elkarrekiko ikaskuntza, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ekiten ikastea...

3.3.1. Oinarriak


Ikaskuntza-zerbitzua zenbait printzipio pedagogikotan oinarritzen da metodologia honetako proposamen bakoitzaren oinarri direnak (Rubio, 2007):

- I+Z ikerketan, ekintzan eta hausnarketan oinarritutako ikaskuntza-idea batetik abiatzen da, aurre ezagutzaren erabilerari garrantzia emateko.
- Gainera, metodologia honen arabera, balioetan oinarritutako hezkuntzak egoera arazotsuetatik abiatu behar du, ondoren erronka horiei zuzeneko esperientziatik egiteko aurre.
- Azkenik, ikaskuntza-zerbitzuak defendatzen du herritarrentzako hezkuntzak oinarritzko printzipio batean oinarrituta egon behar dela, parte-hartze aktibo, arduratsu, kooperatibo eta solidarioan, egungo gizartea hobetzea baitu helburu.

Honetaz gain, azaldu beharra dago metodologia honek lotura estua duten bi elementu dituela: ikaskuntza eta zerbitzu komunitarioa. Ikaskuntza-zerbitzua ez da soilik ikaskuntza gehiago eta hobeak eskuratzeko aukera ematen duen estrategia bat, ezta ere ikasleek soilik egindako boluntarioritza-lanak. Izan ere, I+Zk ikasleen ikaskuntza sustatzen du komunitatean egindako esperientzietan aktiboki parte hartuz, proiektu egituratu eta berariazko baten bidez (Pérez eta Ochoa, 2017).

Metodologia hau ondo ulertzeko eta beste batzuekin ez nahasteko, ikus 1. irudia. Bertan, ardatz bertikalak adierazten du komunitateari eskaintzen zaion zerbitzu solidarioaren

kalitatea, eta ardatz horizontalak adierazten du sustatzen den ikaskuntzari ematen zaion zerbitzuaren integrazioa.



1.Irudia: Ikaskuntza-zerbitzua eta beste esperientzien pedagogien konparaketa. (Rubio, 2007, 6.orr)

3.3.2. Ikaskuntza-zerbitzua izateko baldintzak

Orain arte esandako guztiagatik ikaskuntza-zerbitzuzko proiektuak diseinatzeak ikasteko aukera asko ematen ditu, hezkuntza formaleko nahiz ez-formaleko espazioetan. Proiektu guztiek bost alderdi komun partekatzen dituzte (Rubio, 2007):

- **Ikaskuntza** sistematizatu izan behar da, eman nahi den zerbitzuarekin lotuta, eta ikasleek egin aurretik, bitartean eta ondoren ikasiko dutena biltzen du.
- **Zerbitzuak** ingurune hurbilaren edo globalaren benetako beharrei erantzun behar die, hobetzeko helburuarekin.
- **Proiektuak** balio pedagogikoa izan behar du, hezitzaileak planifikatu eta ebaluatutako proiektu hezitzailea izan behar du.
- **Parte-hartzeari** dagokionez, horrelako proiektuak ikasleen parte-hartze aktiboan oinarritu behar dira, ikasleen protagonista bihurtuz.

- **Hausnarketa**, proiektu bakoitzaren helburua izan behar da parte-hartzaileek une bakoitzean egiten ari denaz eta haren gizarte-onuraz kontzientzia lantzea, hortaz etengabeko hausnarketa beharrezkoa da.

3.3.3. Ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzeko urratsak

Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza-metodologia bat da, ikaskuntza akademikoa eta komunitateari zerbitzua emateko proiektuetan eta jardueretan parte hartzea uztartzen dituen. Metodologia horrek alde aurretik prestatzea eskatzen du, eta honako hauek dira metodologia hori gauzatzeko jarraitu beharreko urratsak (Batlle, 2020):

1. Etapa: Identifikatu premia bat komunitatean eta aukeratu proiektu bat: Ikertu eta aztertu komunitatearen beharrak eta behin behar bat identifikatuta, proiektu bat aukeratu eta horri heldu.
2. Etapa: Gizarte-erakundeekin aliantzak ezartzea: Bilatu proiektuarekin lotutako gaietan lan egiten duten erakunde komunitarioak eta ezarri haiekin aliantzak. Horri esker, proiektua inplementatzeko laguntza eta lankidetzak izango da.
3. Etapa: Proiektuaren plangintza: egin lan-plan zehatz bat, egingo diren jarduerak, behar diren baliabideak eta abar jasoko dituen.
4. Etapa: Proiektua taldearekin/parte-hartzaileekin prestatzea: alde aurretik motibazio-estrategiak beharko dira hasi aurretik ikasleak aktibatzen.
5. Etapa: Proiektua gauzatzea taldearekin.
6. Etapa: Proiektuaren balorazioa eta itxiera taldearekin: une honetan garrantzitsua da proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, ezarritako helburuak lortzen ari direla ziurtatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, doikuntzak egiteko.
7. Etapa: Proiektuaren prozesu osoaren ebaluazioa: Etapa honetan egindako prozesu guztia ebaluatuko da eta etorkizuneko proposamenetarako hobekuntzak erabakiko dira.

3.3.4. Ze aukera ematen dizkie behar bereziak dituzten umeei?

Ikaskuntza-zerbitzuaren metodologiak Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleen ahalduz demokratikoa eta gizarteratzea sustatzen ditu. Ikasle hauei buruz hitz egiten dugunean, parte hartzen duten hezkuntza-esperientzien baldintzak eta ezaugarriak direla-eta zailtasunak dituzten umeez ari gara (López eta Valenzuela, 2015).

Proiektu hauetan ikasleen ahalduntzea pertsona bakoitzak bere gaitasunak erabili eta garatu ahal izateko eskaintzen dituen aukeren arabera da. Beraz, alderdi hori hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrekin lantzea oso esperientzia positiboa izan daiteke gela osorako. Metodologia honetan, taldean lan egiten da, guztiok guztiongandik eta guztiontzat ikasiz. Hori, ordea, haurren eta desgaitasunaren irudikapen historikoarekin kontrajartzen da, tradizioz herritarren partaidetzatik urrun egon diren kolektiboak izan baitira. Horrela, I+Zren bidez benetako gizarteratzea sustatzen dela esan genezake. Proiektu hauek parte-hartzaileen rola arabera sailka daitezke: hartzaileak (HPB duten pertsonen zerbitzua ematen zaie ikusle huts gisa), laguntzaileak (HPB duten pertsonen parte hartzen dute laguntzaile gisa), exekututzaileak (HPB duten pertsonen zerbitzua gauzatzen dute) eta "autogestoreak" (HPB duten ikasleak diseinatzaileak eta kudeatzaileak dira, eta zerbitzuari buruzko erabakiak hartzen parte hartzen dute) (García eta López-Vélez, 2019).

Parte-hartzaileen rola arabera, horien onurak desberdinak izango dira, baina argi dago kolektibo hau dela ahalduntzeko eta gizartean benetako inklusioa lortzeko laguntza gehien behar duenetako bat, eta metodologia honek horretan laguntzen du. Gainera, HPBak eta/edo bazterketa-arriskua duten ikasleak parte-hartzaileen artean egotea hauen bizi-baldintzak hobetzeko aukera luzatzen ditu. Izan ere, García-k eta López-Vélez-ek(2019) ondo azaltzen duten bezala, kontua ez da soilik desberdintasunarekin bizitzen ikastea, edo horri arreta ematea, baizik eta horrekin ikasten ikastea.

Aurreko guztia kontuan hartuta, I+Z gizartea aldatzeko tresnatzat hartzen da, gizarte bidezkoago eta kritikoago baterantz lagun dezakeena, non guztiek, kasu honetan ikasle guztiek, aukera berdina izango dituzten. Gaur egun asko dago egiteko eskola inklusibo batera iristeko, baina lanean ari gara, adibidez, AEN duten hurrek ikasteko prozesuaz goza dezaten. Horregatik, nire ustez, ikastetxeen beharretako bat da Heziketa Fisikoa bezalako irakasgaietan erabiltzen den materiala edo azalpenak AEN duten umeentzat egokitzea berien parte-hartzea sustatzeko, eta, beraz, aspektu hau landuko da nire proposamenean. Horretarako, ezinbestekoa da lehenik zerbitzua egingo den eskolaren ezaugarriak eta testuingurua ezagutzea, zerbitzua ikastetxearen beharretara egokitzeko.

Aipatu dudan moduan ikaskuntza-zerbitzua gizartea aldatzeko tresna gisa erabiltzen da, eta horregatik, ikasten ari naizen graduan zehar eskuratzen eta garatzen joan naizen kompetentziak erabat erabili ditut parean jarri zaidan errealitate ezberdinekin, nolabait, nire barnean hainbat errealitate aldatuz baitira ere. Garapen honek, proiektuan zehar izan dudana ikaskuntza, orokorrean esanguratsuagoa egin du, eta aipatutako kompetentziak garatzeaz gain, huek bizitzan zehar gehiago garatzen jarraitzeko motibazioan lagundu dit.

4. Proposamena

Behin lan honen aspektu teorikoak aurreko orrietan aipatuta, jarraian aurrera eramandako proiektua azalduko da. Horretarako, ikastetxearen ezaugarriak, abiapuntua, proposamena, jarraitutako urratsak eta ikastetxearekiko harremana adieraziko dira.

4.1. Eskolaren testuingurua

Zerbitzua martxan jarri den eskola Gasteizko San Martín auzoan dago, hiriaren erdialdetik hurbil. Auzoa Gasteizko zaharrenen artean dago eta bertan kokatzen dira maila sozio-ekonomiko erdiko eta baxueneko familia asko, bai eta jatorri immigrantea duten familiak eta hainbat harrera pisu ere. Dena den, ikastetxera doazen umeen gehiengoak ez dira auzo honetan bizi, Gasteizko leku desberdinetatik etorritakoak dira. Hala ere, hauen gehiengoak egoera sozioekonomiko oso baxua dute, eta horren adibide da ikaslegoaren %80a bekaduna izatea.

Ikastetxe hau publikoa eta D eredukoa da. San Martín Gasteizen irekitzen 5. ikastetxea izan zen, eta geroztik, ikasle eta irakasle asko pasa dira bertatik, izan ere, ikastetxe honek Haur eta Lehen Hezkuntzako bi lerro jasotzen ditu. Gainera, hezkuntza premia bereziak dituzten umeentzako programa bat aurrera eramaten da, eta bi gela egonkor izateaz gain, fisioterapia, motrizitatea eta bestelako gelak dituzte. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak eskolako oinarriak hartzen ditu, era laburrean esanda eskola honek elkarriketan oinarritutako heziketa bultzatzen du, haurren askatasuna abiapuntutzat hartuta, eta elkarbizitzan bizitzea helburu izanda. Honetarako, komunikazioari, kritikotasunari, sormenari eta gure gizartean integrazeari ematen diote garrantzi gehiena eta hezkuntzako eragile guztiak hartzen dituzte kontuan.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrengan zentratuta, lehen esan dugun bezala, askok beraien gela egonkorak dituzte, eta, beste ikaskideekin egoteaz gain, bakoitzak laguntzaile bat du. Hala ere, astean zehar, HPB dituzten haurrek integrazio-jarduerak egiten dituzte beraien ikasgelarekin, eta batera joaten dira beti Heziketa Fisikoko saioetara. Horrela, inklusioa lantzen da eta oso esperientzia aberasgarriak sortzen dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat zein gainerakoentzat.

4.2. Abiapuntua

Egindako ikaskuntza-zerbitzua praktiketako esperientzia batetik sortzen da. Aurten, Lehen Hezkuntzako graduko laugarren maila egin dut, Heziketa Fisikoko espezialitatean, eta praktiketako hirugarren aldia egin dut. Praktikaldi honetan 10 astez egon naiz Gasteizko zentro batean, eta Lehen Hezkuntza osoko Heziketa Fisikoko saioetan parte hartu dut.

Eskola honetan ikaskuntza- irakaskuntza egoera desberdin asko daude ume desberdin asko ikasten dutelako bertan. Honetan, bi gela egonkor daude non aniztasun funtzionala duten ume asko dauden, garun- paralisia duten umeak, autismoaren espektroko nahasmendua duten ikasleak, arrazoi medikuengatik hizkuntzarekin arazoak dituztenak, mugimen arazoak dituztenak adibidez garun minbizi batengatik orekarik ez duen ume bat... Ikastetxeak ume hauei hezkuntza egokitu bat luzatzen die, alde batetik, espazio anitz eskaintzen dizkie, eta bestetik, Heziketa Fisikoko saioetan sartzen dira euren laguntzailearekin, beste ikasleekin harremantzeko eta beraien modura parte hartzeko, guztiontzako esperientzia aberasgarri bat sortuz.

Horregatik, saio hauen giroa inklusioaren ikuspegitik oso harrigarria da, behar bereziak dituzten umeak oso integratuak baitaude eta beste umeek asko zaintzen baitituzte. Dena den, aipatu beharra dago batzuetan ume hauen ulermen maila beraien parte hartzea mugatzen duela, eta horregatik, behin baino gehiagotan jolasetan parte hartu gabe gelditzen direla. Egoera hauetako batean bururatu zitzaidan nire ikaskuntza-zerbitzuko proiektua.

Egun batean, haur autista baten laguntzaileetako batekin hitz egin nuen, eta esan zidan uste zuela bere ikasleak ez zuela ahal beste parte hartzen, jolasak ulertzen ez zituelako. Galdetu nion ea zer erabiltzen zuten ohiko gelan honi azalpenak emateko, eta piktogramen erabilerari buruz hitz egin zidan. Jolasetako bati buruzko piktogramak sortzea proposatu nion, eta gorputz-hezkuntzako saioan jokatu aurretik lantzen saiatzea. Proposamenak funtzionatu egin zuen, eta une honetan erabaki nuen nire ikaskuntza-zerbitzua gai honi buruzkoa izan zitekeela.

4.3. Esku-hartzea

Aurreko puntuan azaldu bezala nire proposamena ondo joan zen eta orduan bururatu zitzaidan Heziketa Fisikoko saioetan piktogramen bidez gehien egiten diren ariketekin koadernotxo bat sortzea. Gainera, ikastetxeko materiala eta paraxutearekin egiteko bost jolas sartzea bururatu zitzaidan, material hau patioetan ateratzen baitzuten, ikastetxeko ikasle guztiekin jolasteko.

Eskolan AEN duten hurrekin lan egiten duten hainbat irakaslerekin hitz egin ondoren, jolas errazak eta beroketa bakarrik aukeratzea gomendatu zidaten, berotzean egiten direnak bezalakoak, eta gelan erabiltzen dituzten ereduarekin jarraitzea. Horregatik, koadernotxoa egiten martxan jarri baino lehen informazio bilketa batekin hastea erabaki nuen, lehenengo momentutik ikasle hauei laguntzeko tresna bat sortzeko helburua izanik.

Behin informazio guztia jasota eta piktogramak antolatu eta moldatu ondoren liburuxka sortu da (Eranskinetan eskuragarri dago materiala). Sortutako baliabide bisual honetan honako hauek jaso dira:

- Ikastetxean ohikoa den beroketa bat (Ikusi 1. Eranskina).
- Heziketa fisikoko saioetan erabili ohi den materiala (Ikusi 2. Eranskina).
- Talde izaera lantzeko 12 talde jolas (Ikusi 3. Eranskina).
- Patioetan zein HF saioetan jolasteko paraxutearekin diren 5 jolas (Ikusi 4. Eranskina).

4.4. Eskolarekin harremana

Proiektua hasi aurretik ikastetxe hau ezaguna zen niretzat, lehen aipatu bezala aurtengo praktikak bertan egin ditudalako. Gainera, eskolako aholkularia ezagutzen dudanez, berarekin kontaktuan jarri nintzen eta nire proposamen osoa azaldu eta gero, ideia ona zela iruditu zitzaion.

Gainera, praktikaldia HFko irakasleekin egin nuenez eta beraiekin oso harreman ona izan nuenez, eurekin harremanetan jarri eta proposamena luzatu nien. Oso ondo iruditu zitzaion eta nire zerbitzuaren helburuak eta urratsak azaldu nizkien beraiekin lan egiten hasteko. Irakasleek askatasun handia eman zidaten nahi nuen erara egiteko, baina informazioa jasotzeko gomendatu zidaten beraien saioetara ahalik eta gehien gerturatzeko eta egokitzeko. Haien laguntza aste guztietan zehar eskaini zidaten eta elkarrekin lan egin genuen proiektua aurrera eramateko, horren adibide da PTen laguntza ere eskaini izana piktogramak erabiltzeko momentuan. Hortaz era laburrean esanda, aste hauetan zehar etengabe harremanetan egon gara eta horrek asko lagundu nau.

4.5. Parte-hartzaileak

Proiektu honetan zehar, hezkuntzarekin zerikusia duten hainbat pertsonak parte hartu dute. Alde batetik, elaborazioan esan dezaket batez ere nik egin dudala lan ikastetxeko PT baten laguntzarekin. Baina koadernoan egin aurreko faseaz ari bagara, esan beharra dago parte-hartzaile gehiago egon direla, izan ere, ikastetxeko Heziketa Fisikoko irakasleekin ikastetxeko PT batekin, ikastetxeko tutore batekin, ikastetxeko aholkulariarekin, ikastetxeko logopedarekin eta baita Autismo Araba elkartearekin ere harremanetan jarri naiz. Hau da, eragile askok parte hartu dute prozesu luze honetan, batez ere prozesu honen lehen fasean.

4.6. Prozedura

Ikaskuntza-zerbitzu honek Battlek (2022) jasotako 7 urratsak jarraitu ditu:

1. Etapa: Identifikatu premia bat komunitatean eta aukeratu proiektu bat

Fase hau egiteko, Gasteizko eskola batean egindako praktiketan bizitako egoera batean zentratu naiz, Heziketa Fisikoko eman zen egoera batean hain zuzen. Lehenik, premia bat antzeman nuen autismoaren espektroko nahasmendua duten hurrei dagokienez, haien parte-hartzea haien ulermen-gaitasunak baldintzatzen baititu. Premia hau identifikatuta, ondoren, behar hau asetzeko tresna desberdinak baloratu nituen, eta piktogramen bidez euskarri bisual bat sortzea erabaki dut, Heziketa Fisikoan egiten diren ariketa batzuk azaltzeko.

2. Etapa: Gizarte-erakundeekin aliantzak ezartzea

Piktogramen inguruan ikertzen hasi nintzenean konturatu nintzen formatu eta tresna desberdinak zeudela hauek sortzeko. Hortaz, Autismo Araba elkartearekin eta ikastetxeko logopedarekin harremanetan jarri naiz. Horrela, elkarteak azaldu zidan gehien erabiltzen den aplikazioetako bat AraWord dela, eta ARASAACen weborrian programa honen instalazioari eta erabilerari buruzko informazioa bideoen bidez aurki nezakeela. Gainera, zentroko logopedarekin hitz egitea gomendatu zidan, AraWordeko piktogramak zentroan erabiltzen zirenekin bat zetozela egiaztatzeko. Esan dezaket, emandako informazio guztia oso baliogarria izan zaidala proiektu honetako lehen urratsak emateko.

3. Etapa: Proiektuaren plangintza

Behin aurrekoa eginda, beharrezkoa izan da lan-plan bat sortzea. Nire kasuan, ikastetxean informazioa biltzen hastea erabaki nuen, zer joko jasotzeko eta nire proposamena benetan erabilgarria ikusten ote zuten jakiteko. Informazio hau bildu ondoren, jasotakoan oinarrituz materiala sortzea erabaki nuen. Jarraian, erabiliko duten irakasleei aurkeztea izan da nire eginkizuna, amaitzeko, sortutakoaren balorazioa egiteko.

4. Etapa: Proiektua parte-hartzaileekin prestatzea

Fase honetan irakasleen beharrezko informazioa jasotzeko material bat sortuz hasi nintzen eta haiekin bildu nintzen. Proiektuaren ezaugarri guztiak azaldu eta laguntza eskatu nien, guztiei oso ideia baliagarria iruditu zitzaie, eta une oro lagundu naute. Hasteko, informazio-orria bete zidaten, eta bertan azaldu nahi zituzten jokoak zehaztu zizkidaten. Hala nola, armiarma, biko banda, kadeneta ...

5. Etapa: Proiektua gauzatzea taldearekin

Etapu hau nire proiektua gauzatzean datza, nire kasuan euskarri bisuala sortzean. Prozesu osoan zehar ikastetxetik lagundu naute, irakasleei erakusten saiatu naiz, eta gomendioak eman dizkirate AENrekin umeentzako ariketa-koadernoan amaitu dudana arte.

6. Etapa: Proiektuaren balorazioa eta itxiera parte-hartzaileekin

Koadernoan amaitu ondoren, inplikaturako irakasleen aurrean aurkeztu dut, eta egindako prozesu guztia azaldu diet. Eta amaitzeko, ikaskuntza-zerbitzuaren balorazioa egiteko, ebaluazio-orri bat osatzeko eskatu diet (Ikusi 6. Eranskina). Honetan bildutako emaitzak hurrengo atalean azalduko ditut parte-hartzaileen balorazioan hain zuzen.

7. Etapa: Proiektuaren prozesu osoa ebaluazioa

Irakasleek ebaluazio-orrian aipatu zidaten guztia aztertu ondoren, eta prozesuaren autoebaluazioa egin ondoren, ondorioak atera eta etorkizuneko proiektuetarako hobekuntzak aztertu eta erabaki ditut. Hauek hurrengo atalean jaso ditut, balorazio pertsonalean hain zuzen.

5. Informazioa jasotzeko tresnak

Ikaskuntza-zerbitzu honen prozesuan informazio asko bildu da, eta, horretarako, prozesuaren etapa desberdinetan hiru material desberdin erabili dira: informazioa biltzeko tresna, ikaskuntza-zerbitzua sortzeko tresna eta zerbitzua ebaluatzeko tresna.

5.1. Hasierako informazioa biltzeko tresna

Proiektuarekin hasteko, beharrezkoa izan dan etorkizunean erabiliko zuten irakasleekin komunikatzea. Horretarako, eta nire I+Zren erabilgarritasuna ziurtatzeko eta sortu behar nuen koadernotxoan zein ariketa sartu nahi zituzten jakiteko, galdetegi bat bidali nien galdera batzuekin (ikusi 5. Eranskina). Lortutako datuen bidez, proiektuaren hurrengo faseak egin ahal izan ditut, eta honetan bilduko ziren jokoak zehaztu.

Formulario honen bidez atera ditudan ondorioek nire proiektua egiteko balio izan didate. Lehenik eta behin, profesional guztiek baieztatu zuten AEN duten haurrek oraindik ez dutela gainerako ikasleek bezala parte hartzen Heziketa Fisikoko eskoletan. Hori gehienetan komunikatzeko eta ulertzeko zailtasunengatik gertatzen dela adierazi zuten. Horregatik, zer beharko luketen galdetzean, beste irakasle batez gain, azalpen argiagoak eta euskarri bisualak adierazi zituzten. Hori dela eta, jardueren koadernotxoa egiteko, lehenik eta behin adierazi zitzaiezen zer jardueren mota ikusten zuten egokiena beraietzat, eta denek bat egin

zuten taldeko jardueretan. Ondoren, liburuzka osatzeko, honetan zer joko ager zitezkeen galdetu zitzairen, eta hauek izan ziren beraien erantzunak: Armiarma, biko banda, 123 karabinbonban, kadeneta, stop, baloi eseria, patioetan erabili ahal dituzten jolasak...

5.2. Ikaskuntza-zerbitzua sortzeko tresna

Arestian azaldu bezala, piktogramen bidez azaldutako ariketekin koadernotxo bat sortu dut (Ikusi 1, 2, 3 eta 4. Eranskina). Horretarako, piktogramen erabilerari buruzko informazioa jaso behar izan dut. Nire kasuan, Autismo Arabako elkartearekin eta ikasketxeko logopedarekin harremanetan jarri ondoren, nire proiektua sortzeko AraWord aplikazioa erabiltzea erabaki nuen, ARASAACen piktogramekin funtzionatzen duena, ikastetxean erabiltzen diren berdinak.

Behin Ara Word aplikazioan piktogramen sekuentziak antolatuta, beste aplikazio bat erabili dut koadernotxoa muntatzeko, Canva aplikazioa. Honen bidez proiekturako azal bat sortu dut, ikusizko baliabidearen atal bakoitzari forma emateko aukera izan dut eta irakasleentzat erakargarria eta antolatua den zerbait sortu ahal izan dut.

5.3. Ikaskuntza-zerbitzua ebaluatzeko tresna

Informazioa biltzeko azken baliabide gisa, proiektuaren ebaluazio-fitxa dugu (ikusi 6. Eranskina). Fitxa hau sortutako koadernotxoa aurkeztu ondoren eman zaie irakasleei egindako lana ebaluatzeko eta hobetu beharreko alderdiak ezagutzeko. Honetan bildutako guztia hurrengo atalean jaso dut, parte-hartzaileen balorazioan hain zuzen.

6. Emaitzak

Hurrengo atalean, hainbat aspektu aztertuko dira, hala nola planifikazioa, faktore erraztatzaileak eta oztopatzaileak, parte-hartzaileen balorazioa eta balorazio pertsonala, egindako proiektuaren emaitza orokorrak ateratzeko helburuarekin, ondoren, lortutako guztiari buruzko hausnarketa egiteko.

6.1. Planifikazioa

Proiektu honen plangintza oso positiboa eta egokia izan da aspektu guztietan. Hasieratik, jarraitu beharreko urratsak ezarri dira, eta hauek oso zuzenak izan dira denboralizazioari dagokionez, bakoitzaren iraupena markatu eta jarraitu baita. Nire ustez, ezarritako epeak funtsezkoak izan dira zerbitzuaren kalitate hobereana eskaintzeko hasiera batean erabakitako helburuak eraginkortasunez bete ahal izateko.

Lehen aipatutako urratsak egituratzeko orduan, egin beharreko balizko gorabeherak edo aldaketak kontuan hartu dira, eta hori beharrezkoa izan da kalitate handiagoko materiala eskaini ahal izateko. Proiektua sortu bitartean aldaketak oso ohikoak direnez, plangintza hau oso baliagarria izan da San Martin ikastetxearen errealitatera egokitutako baliabide oso bat aurkeztu ahal izateko.

Diseinuari eta materialari dagokienez, esan beharra dago prozesuan zehar hainbat aldaketa eta egokitzapen egin direla une bakoitzeko beharrekin eta zerbitzuaren hartzaileen aholkuekin zuzenean lotuta. Alde batetik, proiektuaren piktograma motak hautatzea. Bestalde, materialean garatu beharreko jolasak eta jarduerak adostea. Gainera, erabili beharreko materiala gehitzearen erabakia. Eta, azkenik, aurkeztu beharreko materialaren formatua. Aldaketa horien ondorioz, zerbitzua emankorragoa izan da eta hartzaileen errealitatera eta beharretara egokitu da.

6.2. Faktore erraztatzaileak eta oztopatzaileak

Gauzatu den proiektuak faktore erraztatzaileak eta oztopatzaileak izan ditu. Proiektua gauzatzeko faktore erraztaileei dagokienez, oso garrantzitsua izan da ikastetxeko profesionalekin harreman zuzena eta jarraitua izatea, baita pedagogo terapeutikoekin, irakasleekin edo ikastetxeko aholkulariarekin ere. Izan ere, pertsona hauek esperientzia eta ezagutzak eman dizkirate materialaren eraginkortasuna eta ulergarritasuna bermatzeko. Hau da, nire ustez, oso aberasgarria izan da hezkuntza-esparru desberdinetako espezialistekin lan egin izana.

Gainera, gaiari buruzko tresna teknologiko aurreratuak izatea (AraWord eta ARASAAC) funtsezkoa izan da liburua sortzeko, eskolan egunero erabiltzen diren piktogrametan oinarritzen baita. Faktore lagungarri hauetaz gain, gaur egungo gai batekin lan egin izanak informazio eguneratua eta gaur egungo errealitateari lotutako ikuspuntua biltzeko aukera eman dit, bai gizartean, bai ikastetxean.

Faktore oztopatzaileei dagokienez, proiektuaren prozesuan sortu den bakarrenetakoa aurretik erabili gabe ezagutzen nuen baliabide teknologiko bat erabili behar izatea izan da. Horretaz gain, nabarmendu beharreko beste zailtasun bat diseinu egokia aurkitzea izan da, AEN duten haur guztientzat egokitua. Estimulu handirik gabeko material erakargarria sortzea gomendatu baitzidaten, hasieran zaila egin zitzaidana. Faktore mugatzaile hauek izan arren, guztiei irtenbideak aurkitzen jakin dut, eta material egokia eta egokitua sortzea lortu dut.

6.3. Parte-hartzaileen balorazioa

Lehen aipatu dudan bezala, kasu honetan parte hartu duten irakasleek eta ikastetxeko aholkulariak, materiala ikusi ondoren, zerbitzua ebaluatzeko galdetegi bat bete dute. Honetan proiektuaren inguruko iritziak eta hobetzeko proposamenak islatu ahal izan dituzte, hauek azaltzeko grafikoak erabili dira non berde kolorez adierazi da “erabat ados” iritzia.

Hurrengo hiru grafikoetan ikusi daitekeen, irakaslegaiak lortu ahal izan dituen helburuen artean, lorpenak osotasunean bete dira (Ikusi 1. Grafikoa), lehenengo lorpena teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea, bigarrena irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzea, eta hirugarrena ezagutza berria sortzea izanik. Laburbilduz, hiru grafiko hauek baieztatzen dute, irakaslegaiak errealitatera erabat hurbiltzea lortu duela, ikaskuntza eta irakaskuntza teoriaren zein praktikaren bidez garatu ahal izateko ezagutza berriak sortzen dituzten bitartean.

1. Grafikoa: Irakaslegaiaren lorpenen 1. zatia (Egileak egina)



Hurrengo atalean proiektuaren baliogarritasunaren aspektua aztertu da, horretarako hurrengo galderak egin zaizkie irakasleei (Ikusi 2. Grafikoa). Ikusi daitekenez parte-hartzaileek pentsatzen dute esku-hartze hau arrakastatsua eta egoki izan dela euren errealitatea kontuan hartuta. Eta gainera hirurek horrelako ekimenek euskararen gaitasuna eta erabilera hobetzen dutelarekin bat etortzen dute.

2. Grafikoa: Irakaslegaiaren lorpenen 2. zatia (Egileak egina)



Parte-hartzaileek erantzun behar izan zituzten hurrengo galderak izan ziren ea zer alderdi hobetu daitezkeen horrelako proiektu bat egitean, eta emaitzak oso antzekoak izan ziren (Ikusi 3. Grafikoa). Hauetan, azertu daitekeenez, iritzi guztiak oso antzekoak dira, eta guztietan islatzen da parte-hartzaileak ados daudela proiektu hauek hobetzen dituzten aspektuekin. Izan ere, eskolan garatu behar dituzten gaitasunak garatzeko, erabaki eta arazoan aurrean autonomia erakusteko, argudiatzeko eta iritzi akademiko eta profesionalak emateko baliogarri ikusten dituzte honelako proiektuak.

Honetaz aparte, parte-hartzaile guztiek bat egiten dute horrelako ekimenak irakaslegaien profil profesionalerako onuragarriak direla esatean, eta proiektu honetan parte hartzea ikastetxearentzat onuragarria izan dela adieraztean. Hala ere, ikus daiteke parte-hartzaileetako batek ez dagoela guztiz ados horrelako proiektuek ikasleei hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean iritzi akademiko eta profesionalak ematen laguntzen dutelarekin.

3. Grafikoa: Eskolatzeko-prozesuak hobetzeko baliogarritasuna (Egileak egina)

ESKOLATZE-PROZESUAK HOBETU



Bestalde, galdera horien ondoren, beste galdera ireki batzuk proposatu ziren, eta parte-hartzaileek beren erantzunak idatzi ahal izan zituzten. Lehenengoan, zerbitzua jaso aurretik eta ondoren nola sentitu ziren galdetzen zitzairen. Kasu honetan aipatu dute laguntza jasotzeko gogoz zeudela, eta gero ikusi dutela oso gai eta baliabide egokia izan dela bere ikastetxearen errealitaterako.

Hurrengo galderan, aldiz, galdetu zaie ea aberasgarria izan den horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea, eta kasu honetan guztiek baietz erantzun dute. Gainera, aipatu dute zerbitzu honen abantailak hezkuntza komunitate osoarentzat izan direla, ez bakarrik AEN duten haurrentzat, eta oso erabilgarria izan dela ikastetxerako baliabide bat sortzea.

Azkenik, azken bi galderetan galdetzen zitzairen nola hobetuko zuten proiektua eta nola baloratuko zuten hitz gutxitan. Kasu honetan, parte-hartzaileek esan dute hobetu egingo

litzatekeela horrelako proiektuak gehiagotan errepikatuz edo sortutako materiala are gehiago osatuz. Eta, azkenengo galderan, proiektua honela kalifikatu dute: *“motibagarria, indar handikoa, betegarria, erabilgarria, zoragarria eta bikaina”*.

6.4. Balorazio pertsonala

Nire balorazio pertsonalari dagokionez, gaia aukeratzearekin eta lehen urratsekin hasiko naiz, nire ustez, ikaskuntza-zerbitzua hau gauzatzeko esperientzia guztia zehaztu duen hautua izan zena. Hasieran ez nuen ideia argirik, baina nire ingurune hurbilean begiratu ondoren, niretzat oso gai interesgarria eta motibagarria lortu nuela uste dut, eta, horren ondorioz, proiektuan zehar oso eroso sentitu naiz lanean. Momentu guztietan lan egiteko prest ikusi dut nire burua eta ahalik eta zerbitzu aberasgarri bat ematen saiatu naiz.

Bestalde, aldaketak egiteko denbora tarteak planifikatzea erabaki izana oso egokia izan da. Izan ere, prozesuan zehar hartzaileek aholkuak eman dizkirate eta nire materiala aldatuz joan naiz. Lehenik eta behin, elkarrekin erabaki genuen gauza gehiago gehitzea materialaren barruan, berotzeko ariketak adibidez. Gero eskatu zidaten materiala digitalki eskaintzea, formatu editagarri bat sortuz aurrerago jolas gehiago gehitzeko. Aldaketa hauek material egoki eta ikastetxearen beharretara egokituagoa sortzen lagundu didate.

Hala ere, aldaketa hauek ez direla soilik ebaluazio formularioko erantzunen bidez eman aipatu beharra daukat, baizik eta baita parte-hartzaileek eman dizkidaten aholkuen bidez ere. Izan ere, etengabeko komunikazio ona izan dut haiekin, eta alderdi hau oso garrantzitsua izan da proiektu hau aurrera eramateko. Gainera, zerbitzua hurbileko kolektibo ezagun batean egitea oso ideia ona izan da, etengabeko komunikazioa izaten lagundu duelako, eta, horren ondorioz, zerbitzu hobea sortu ahal izan delako.

Aipatutako guztiagatik, nire ustez, ebaluazio-formularioan lortutako eta jasotako emaitza guztiak lan on baten emaitza dira, ondo antolatua eta motibazio handiz egina, gertuko premia bat hornitzeko. Hori dela eta, balorazio hau oso modu positiboan amaitzen dut, eta hurrengo atalean, ikaskuntza-zerbitzu honek erakutsi didan guztia azaltzeko abiapuntutzat hartzen dut.

7. Ondorioak

7.1. Eztabaida

Ikaskuntza-zerbitzua honen esperientzian zehar aspektu asko ikasteko aukera izan dut. Niretzat oso ezaguna ez zen metodologia eta kolektibo batekin lan egin izanak gauza

berriak ikastea eta nire etorkizunerako eta egunerokotasunerako ezagutza baliagarriak eskuratzea eragin du.

Alde batetik, proiektu honek giro inklusiboek eta horietan egiten dugun lanak duten garrantzia ikusteko balio izan dit. Gaur egun, inklusioak gizarteko erronka bat izaten jarraitzen du batzuetan, eta jende askok mundu bidezkoago batera heltzeko lan egiten du. Hori da ikasleen artean aniztasun handia dagoen ikastetxe ugarien kasua, non guztien beharrak asetzeko lan egiten duten egunero. Horretarako, motibatuta dauden pertsonak ez ezik, baliabideak ere behar dira, eta batzuetan baliabide horiek falta dira (Hurtado, 2012).

Bestetik, lan honen bidez konturatu naiz gu, irakasleok, baina gizarteko edozein pertsonak ere egin dezakeela ekarpen bat gai honen inguruan ari garenean. Oraindik asko dago egiteko gizarte justu, inklusibo eta errespetuzko batera iristeko, eta gauzak aldatuz baino ez da lortuko; izan ere, García-k eta López-Vélez -ek (2019) esaten duten bezala, kontua ez da soilik desberdintasunarekin bizitzen ikastea, edo horri arreta ematea, baizik eta horrekin ikasten ikastea.

Aurretik aipatu bezala, AEN duten pertsonen ezaugarriek eguneroko jardueretan parte hartzea zailtzen diete komunikazio eta ulerpen kontuengatik. Romero et al. (2016) ikerketa bat egin zuten, non emaitzek erakusten duten ingurunea eskuragarriagoa dela EAN duten pertsonentzat, oztopo kognitiboak murrizten dituzten aldaketak egiten dituztenean. Autore horien arabera, aldaketa horiek ingurune guztietan egingo balira, hauen parte-hartzea askoz handiagoa izango litzateke. Beraz, nire kasuan, Heziketa Fisikoko saioak AEN duten San Martingo ikasleentzat eskuragarriagoak izan daitezzen lagundu dudala uste dut, eta oso modu positiboan baloratzen dut lortutakoa.

Orain arte aipatutakoaz gain, nahiz eta I+Z aurretik ezagutu, hilabete hauetan sakonago aztertzeke aukera izan dut eta asko ikasi dut metodologia honi buruz. Izan ere, ikaskuntza-zerbitzuak komunitate batekin lankidetzan aritzea du helburu, premiaren bat asetzeko; nire kasuan, haur autistak Heziketa Fisikoko saioetan egokitzapen handiago bat izatea. Gainera, Aramburuzabala et al. (2015) adierazten duten bezala, metodologia honek hezkuntzak duen helburu bat lortzen laguntzen du, herritar trebeak gizarte eraldatu ahal izateko prestatzea. Horregatik eta aldi berean inklusioa, komunikazioa, parte-hartze aktiboa eta beste hainbat alderdi lantzeko duen gaitasunagatik, oso metodologia erabilgarria dela defendatzen dut.

Bestalde, irakasle, pt edo aholkulari profesionalekin lankidetzan estuan lan egiteko aukera izan dudanez, haiengandik ere ikasi dudala esan dezaket. Profesional hauei esker, haur autistei trebetasun sozialak, komunikatiboak eta motorrak garatzen laguntzeko erabili ahal

diren ikuspegi eta tresna desberdinak ezagutu ditut eta oso aberasgarria izan da. Honetaz aparte, aipatu beharra daukat etengabeko komunikazioak eta hobetzeko proposamen luzatzeak materiala sortzeko prozesuan asko lagundu didatela.

Azaldutako guztiagatik esan dezaket lan honek asko lagundu didala inklusioari, AEN duten pertsonen eta ikaskuntza-zerbitzuari buruzko aspektu desberdinak ikasteko. Nire ustez, horrelako proiektuak eginez eta aurrera eramanez ikasten da ondoen zertarako balio duten eta nola funtzionatzen duten, eta horren adibide da nire esperientzia.

7.2. Balorazioa

Balorazioari hasiera emateko kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsuenetako bat proiektuaren hasieratik ezarritako helburuen lorpena da. Horiei buruz egin dezakedan balorazioa positiboa da, horiek guztiak betetzea lortu baitut, materiala eta, oro har, proiektua sortu bitartean.

Helburu horien barruan, adibidez, inklusioa aztertzea dago, baita inklusioak hezkuntzan duen zeregina ere, eta hori betetzeko hainbat erreferente teoriko aztertu ditut marko teorikoaren esparruan. Bestalde, eta honekin lotuta, AEN sakonago ezagutzeko helburua ere bada, eta hori aurreko helburua bezala bete dut, baina oraingoan San Martín ikastetxeko hurrekin sakonago indartu dut. Bete den beste helburuetako bat Heziketa Fisikoaren analisisia, eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten hurrekin Heziketa Fisikoan dituzten beharrak aztertzea da, ondoren materiala behar horiek kontuan hartuta sortu ahal izateko. Bestalde, proiektuaren bidez, zerbitzu-ikaskuntzaren metodologia ezagutaraztea eta hori ikastetxe batean gauzatzea ere bada bete den helburua, eta argi dago, gainera, oso feedback positiboa jaso duela. Baieztapen hauek esan nahi dute, oro har, prozesuaren hasieran ezarritako helburu guztiak bete direla, eta puntu positibo horrek gehiago motibatzen nau etorkizuneko irakasle gisa planteatuko zaizkidan proiektuetarako.

Hau ikusita, balorazio edo hausnarketa pertsonalari dagokionez, oso pozik eta harro nago egin dudana lanagatik, eta prozesuan ikasi eta eskuratu dudana guztiagatik. Proiektu honi esker, proiektuaren plangintza on baten garrantziaz ikastea lortu dut, ondoren hau gauzatu ahal izateko eta, aldi berean, helburu batzuk ezarri ahal izateko, eta horiek hasieratik amaierararte bete ditut. Proiektu hau gauzatzeak taldean lan egitearen eta pertsona guztien arteko komunikazioaren garrantzia baloratzen ere lagundu dit, ezarritako helburuak lortzeko.

Argi daukat proiektu honek gauza asko ekarri dizkidala maila pertsonalean ere. Proiektu honi esker, AEN duten pertsonen enpatia eta ulermena baloratzen ikasi dut, baita beste edozein talde edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen enpatia eta ulermena

ere. Pertsonalki, proiektu honek oso garrantzitsua dela gizarteak erantzukizun soziala izatea erakutsi dit, komunitateari edo, nire kasuan, ikastetxeari horrelako zerbitzu bat eskaintzea oso positiboa eta oso lagungarria izan daitekeelako, niretzat adibidez, nire hazkunde pertsonalean lagundu didalako.

Ildo beretik, esan beharra daukat nire hazkunde pertsonalean laguntzeaz gain, profesionalki hazten ere lagundu didala. Alde batetik, aurreko atalean ondo azaldu dudana bezala, etorkizuneko lanbidean lagunduko didaten gai askori buruzko prestakuntza jaso dut. Gainera, proiektu honen bidez, nire ingurune hurbilean kritikoagoa, enpatikoagoa eta aktiboagoa izateko gaitasunak garatu ditut, eta horiek ere lagunduko didate profesionalki, irakaslea naizenean, klase inklusibo baten alde lan egiten, guztiontzako aukerak eskainiz. Beraz, esan dezaket esperientzia honek nire hazkunde pertsonalerako zein profesionalerako ekarpena egin didala.

Bestalde, amaierako materialaren balorazioari dagokionez, oso balorazio positiboa izan da, eta horrek nire lanaz gehiago harrotzen nau. Balorazio on horrek esan nahi du, ezarritako helburuak betetzea lortu dudala, eta materialean izan dudana eta inplikazioa oso ona eta oso garrantzitsua izan dela. Bestalde, erakusten dit materiala oso erabilgarria izan daitekeela etorkizunerako, erabili nahi denean. Balorazio positibo horrek gehiago motibatzen nau, eta metodologia hori ezagutzen jarraitzeko gogo handiagoa dut, komunitateari laguntzen jarraitu ahal izateko, sentsibilizatzen, materiala sortzen edo inplementazioak egiten.

Oso pozik nago jasotako balorazioarekin eta egin dudana lanarekin, baina proiektu oro bezala, pertsonalki, badira hobetu beharreko alderdiak edo egitea gustatuko litzaidakenak. Gustatu izan litzaidake materiala osoago egin izana, hala nola, joku eta hizkuntza gehiagorekin, kultura desberdinak kontuan hartuta... izan ere, piktogramak unibertsalak izan arren, kultura desberdinetako haurrek ideia desberdinak izan ditzakete erabili diren kontzeptuei buruz, kontuan hartuta ikastetxe honetan kultur eta hizkuntza aniztasun handia dagoela.

Hobekuntza ildoak alde batera utzita, bizi izan ditudan esperientziak, asko animatu naute jarraitzeko eta hezkuntza-arloan trebatzeko esan dezaket. Etorkizuneko irakasle gisa, proiektu honi esker, sakonago ezagutu ahal izan dut hain berritzailea den I+Z metodologia, non ikasleak diren proiektuaren protagonistak. Era berean, ikaskuntza-zerbitzuari buruz orain arte egin dudana lanak, gauzak lehen neukana baino ikuspegi kritikoago batetik ikusteko gaitasuna eskaini dit, eta nire alderik ikertzaileena eta sortzaileena garatzen lagundu nau.

Aurreko ideari dagokionez, ikaskuntza-zerbitzuan trebatzen jarraitzea gustatuko litzaidake, nire ustez beharrezkoa baita ikasle eta pertsona guztiek hezkuntza-eskubide bera izatea. Nire helburua, irakasle naizen aldetik, nire etorkizuneko ikasleei une oro ikasten jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea da, eta haientzat, ikasle guztientzat, ikasgela ingurune eroso eta segurua izatea. Horrek nire ikaskuntza eta irakaskuntza aberastuko lituzke, baina argi daukat baita, helburu hauek guztiak betetzeak, nire etengabeko formakuntza eta ikaskuntza eskatuko dutela.

8. Bibliografía

- Aramburuzabala, P., Cerrillo, R. eta Tello, I. (2015). Aprendizaje-servicio: una propuesta metodológica para la introducción de la sostenibilidad curricular en la universidad. *Revista de currículum y formación del profesorado*, 19(1), 79-95.
- Batlle, R. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de aprendizaje-servicio? *Crítica*, 972(61), 49-54.
- Batlle, R. (2020). *Aprendizaje-servicio. Compromiso social en acción*. Santillana.
- Blanco, R. (2006). La equidad y la inclusión social: Uno de los desafíos de la educación y la escuela hoy. *REICE: Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 4 (3), 1-15.
- Escribano, A. eta Martínez, A. (2013). *Inclusión educativa y profesorado inclusivo. Aprender juntos para aprender a vivir juntos*. Narcea.
- Espainiako Autismoaren Konfederazioa. (2021). *Situación del alumnado con trastorno del espectro del autismo en España*. Espainiako Autismoaren Konfederazioa.
- Eusko Jaurlaritz. (2019). *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz. (2020). *Proposamen inklusiboak. Hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleekin esku-hartzea (HLBP)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- García, Á., eta López-Vélez, A. L. (2019). Contribución del aprendizaje-servicio a la experiencia educativa democrática de las personas con necesidades educativas especiales en base al pensamiento de Dewey. *Revista de Educación Inclusiva*, 12(1), 11-30.
- Heredia, J. eta Duran, D. (2013). Aprendizaje cooperativo en educación física para la inclusión de alumnado con rasgos autistas. *Revista de Educación Inclusiva*, 6(3), 25-40.
- Hernández-Castilla, R., Slater, C., eta Martínez-Recio, J. (2020). Los objetivos de desarrollo sostenible, un reto para la escuela y el liderazgo escolar. *Profesorado, Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 24 (3), 9-26.

- Hurtado, I. G. (2012). Una dirección escolar para la inclusión escolar. *Perspectiva Educativa*, 51(2), 18-42.
- IBE-UNESCO (2016). *Training Tools for Curriculum Development. Reaching out to all learners: a Resource Pack for Supporting Inclusive Education*. IBE-UNESCO.
- Lacruz-Pérez, I., Morales-Hernández, A. J., Caurín-Alonso, C., eta Tárraga-Mínguez, R. (2022). El eco del autismo en la prensa española: una comparativa de tres décadas. *Revista Prisma Social*, (36), 117-141.
- López, S. I. M., eta Valenzuela, B. G. E. (2015). Niños y adolescentes con necesidades educativas especiales. *Revista Médica Clínica Las Condes*, 26(1), 42-51.
- López-Vélez, A. L. (2018). *La escuela inclusiva: El derecho a la equidad y la excelencia educativa*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial.
- Pérez, L. M., eta Ochoa, A. D. L. C. (2017). El aprendizaje-servicio (APS) como estrategia para educar en ciudadanía. *Alteridad. Revista de educación*, 12(2), 175-187.
- Ríos, M. (2009). La inclusión en el área de Educación Física en España: Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, 9, 83-114. Hemendik berreskuratuta: <http://hdl.handle.net/11181/3837>
- Romero, M. V., Castellanos, P. J. B., eta Simal, A. G. (2016). Las adaptaciones en el entorno mejoran la percepción de la accesibilidad cognitiva en los adultos jóvenes con trastorno del espectro autista. *Revista de Terapia Ocupacional de Castilla y León*, 7, 43-49.
- Rubio, L. (2007). *Ikaskuntza eta zerbitzu solidarioen sakelako gida*. Zerbikasi gida, 0. Zerbikas Fundazioa.
- Varela, D. C., Losada, A. S., eta Fernández, J. E. R. (2019). Aprendizaje-Servicio e inclusión en Educación Primaria: una revisión sistemática desde la Educación Física. *Retos: Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (36), 611-617.
- Vidriales, R., Gutiérrez, C., Sánchez, C. E., Plaza, M., Hernández, C., eta Verde, M. (2021). *El alumnado con trastorno del espectro del autismo en España. Análisis de la distribución autonómica y de los modelos educativos existentes*. Confederación Autismo España. Hemendik berreskuratuta: <http://hdl.handle.net/11181/6263>

9. Eranskinak

1. Eranskina: Azala, aurkibidea eta beroketa

The image shows the cover and table of contents of a physics workbook. The cover features a colorful watercolor background with pink, yellow, blue, and green washes. A piece of white grid paper is taped to the cover, containing the title 'HEZIKETA FISIKORAKO ERREKURTSOAK'. Below the title, a white box contains the author's name 'EGILEA : ILAZKI GASTON'. The table of contents is presented in a white box on the right side of the image, listing chapters and their page numbers. At the bottom right, there is a small text box with a copyright notice and the number '1'.

HEZIKETA FISIKORAKO ERREKURTSOAK

**EGILEA :
ILAZKI GASTON**

AURKIBIDEA:

Beroketa.....2

Materiala.....5

Talde jolasak.....9





Jolasak paraxutearekin....22

Erabilitako ikur piktografikoak Aragoiko Gobernuaren jabetzakoak dira, eta Sergio Palaok sortu ditu ARASAACentzat (<http://www.arasaac.org>), Creative Commons BY-NC-SA lizentziarekin banatzen dituenak.

1








BEROKETA

2



3

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés



Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

4

2. Eranskina: Materiala

MATERIALA

5



6


Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés




saskia



saskibalo-baloia




uztaia




pika




futbolezkoko baloia




porteria txikia



pilota txikiak



plintoa




diana

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés


7



hockey makila



boti boti pilota




petoa




kono handiak




kono txikiak




koltxoneta



esterila



bankua



paraxutea



Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

8

3. Eranskina: Talde jolasak

TALDE JOLASAK

Armiarma




9

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

10

Armiarma koloretsua



Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

11


Kadeneta



Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés


12

Biko banda




13
 Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
 Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

Baloi eseria



14
 Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
 Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés


1,2,3 Karabin bon ban



15

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés


Erdiko txerria



16

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés


Bonba



Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

17



Stop



Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés



18

Fantasma



19
Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) **Egilea:** Ilazki Gastón Andrés

Estatuak



20
Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) **Egilea:** Ilazki Gastón Andrés

Dado musikala



Irakasleak



musika jarriko du



bozgoragailuan.



Musika



gelditzean



irakasleak



dadoa



botako du.

1 2 3

Ateratzen diren zenbakia



zenbat



lagunekin



bildu behar garen esango du.

2

Adibidez 2 ateratzen bada



bikoteka jarriko gara,

3

edo 3 ateratzen bada



hirunaka.

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

21

4. Eranskina: Jolasak paraxutearekin



Ezetz pilota sartu!



JOLASAK PARAXUTEAREKIN




22



23

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

Kontuz zuloarekin!





24
 Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
 Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

Kolore kolore...



25
 Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
 Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés


Eguraldiaren jolasa



26

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

Izenen jolasa



2



27

Piktogramen egilea: Sergio Palao Iturria: ARASAAC(<http://arasaac.org>)
Lizentzia: CC (BY-NC-SA) Egilea: Ilazki Gastón Andrés

5. Eranskina: Informazioa biltzeko tresna

Hasierako informazioa biltzeko tresna

Zure ustez, AEN duten hurrek, gainerako hurrek bezala parte hartzen dute Heziketa Fisikoko saioetan?

- a. Bai
- b. Ez

Zure ustez, zer oztopo dituzte AEN duten ikasleek Heziketa Fisikoko irakasgaiari?

- a. Mugimendu gaitasunarekin lotura duten oztopoak
- b. Ulermen oztopoak
- c. Komunikatzeko oztopoak
- d. Jarduera ezberdinekiko beldurra

Zure ustez, zer jolas mota dira aproposenak AEN duten hurrekin egiteko?

- a. Bakarkako jolasak
- b. Lankidetzak jolasak
- c. Aurkaritza jolasak
- d. Lankidetzak + aurkaritza jolasak
- e. Naturan egiten diren jolasak
- f. Gorputz adierazpena lantzeko ariketak

Kontuan hartuta AEN duten ikasleek HFko saioetan beste pertsona baten laguntza izaten dutela Heziketa Fisikoko irakasleaz gain, zure ustez zer lagunduko lieke irakasgai honetako jarduerak hobeto ulertzeko?

- a. Beste irakasle bat
- b. Azalpen zehatzagoak
- c. Euskarri bisualak (piktogramak)

AEN hurrekin lan egiten duzun irakasle zaren aldetik, zer jolas azaldu nahiko zenieke ikusmen-errefortzu batekin, hau errazago ulertzeko?

6. Eranskina: Zerbitzua ebaluatzeko tresna

Zerbitzuari buruzko balorazio-galdetegia

Galde-sorta honen bidez jakin nahi dugu ea zerbitzua zuen ikastegiarentzat/elkartearentzat ekarpen positiboa izan den. Emandako informazioa konfidentziasunez erabiliko da

* Indica que la pregunta es obligatoria

1. Ikastegia / Erakundea / Elkartea *

2. Ikaslea(k) *

Zerbitzuari buruzko balorazio-galdetegia

Galde-sorta honen bidez jakin nahi dugu ea zerbitzua zuen ikastegiarentzat/elkartearentzat ekarpen positiboa izan den. Emandako informazioa konfidentziasunez erabiliko da.

3. Ikastegia / Erakundea / Elkartea *

4. Ikaslea(k) *

5. Irakaslegaiak lortu du...

Marca solo un óvalo por fila.

	GUZTIZ ados	NAHIKO ados	EZ OSO ados	BATERE ados	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
...teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...ezagutza berria sortzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

6. Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...)*

Marca solo un óvalo por fila.

	GUZTIZ ados	NAHIKO ados	EZ OSO ados	BATERE ados	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Zuk ikusi eta entzundakoaren arabera, burututako esku-hartzea arrakastatsua izan da?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Burututako esku-hartzea egokia eta eraginkorra izan da zerbitzua jaso dutenentzat (ikastetxeko ikasleentzat, erakundeko erabiltzaileentzat, elkarteko bazkideentzat...)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Iruditzen zaizu horrelako ekimenekin parte hartzen dutenek (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) euskararen gaitasuna eta erabilera hobetzen dutela?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

7. Eskolatzeko-prozesuak hobetu *

Marca solo un óvalo por fila.

	GUZTIZ ados	NAHIKO ados	EZ OSO ados	BATERE ados	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Hobekuntza/berrikuntza proiektuak baliagarriak dira irakaslegaiantzat eskolan garatu beharko dituzten gaitasunak hobetzeko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiantzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean autonomia erakusteko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiantzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean hausnarketa egiteko eta argudiatzeko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiantzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean iritzi akademiko eta profesionalak emateko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Uste duzu irakaslegaien profil profesionalerako onuragarriak direla horrelako ekimenak?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ikastetxerako/erakunderako /elkarterako... onuragarria izan da horrelako ekimen batean parte hartzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

**Gustatuko litzaizuke
hurrengo urtean horrelako
zerbait egitea?**

Zure esperientzia eta iritzia modu irekian

8. Hezkuntza Fakultateko zerbitzua jaso behar zenutela jakin zenuenenean, zer-nolako inpresioa hartu zenion gaiari? Eta ondoren, espero zenuen bezala izan da?

9. Aberasgarria izan da horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea? Zergatik? Zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu horrelako esperientzia batek?

10. Aberasgarria izan da horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea? Zergatik? Zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu horrelako esperientzia batek?

11. Nola hobetu daiteke prozesu hau?

12. Amaitzeko, oro har, nola baloratuko zenuke esperientzia? Adjektibo pare bat eman.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios